



A zer pare! Karakola eta barea!

Aurreko urriaren 16an alorreko sindikatuen ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saileko buruekin (Sailburua, Cristina Uriarte, Sailburuordea Arantza Aurrekoetxea eta Sailburuko Kabinetearen zuzendaria, Jose Manuel Bujanda). Argi geratu zen Hezkuntza sailak ez duela ezagutzen benetan gure egoera (negoiazioa, zorraren kitatzeko era,...) aldebakarreko informazioa jaso duelako. Hasiera batean "hau patronal eta sindikatuen arteko auzia da" esatetik zerbait egiteko konpromiso hartzera pasatu ziren. Sailburuaren ustez, ez dago dirurik ezta legalitatea saihesteko asmorik ere (hortxe da %95eko ekiparazioa). Sindikatuek gaitzetsi genion bere lidergo eza eta muzin egitea hezkuntza sistemaren heren bati eragiten dion gatazkari. Gure ustetan, Hezkuntza sailak patronalak presionatu behar ditu negozia dezaten administrazio baita finantziario publikoaren irizpideak ezartzen dituen eta beste aldera begiratzen du patronalek lan-erreforma aplikatzean edo ordainketa eskuordetuaren dekretua betetzen ez dutenean. Ez zuen inolako konpromisorik hartu gatazka konpontze aldera.

Urriaren 21ean, sindikatuek agerraldia izan genuen Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean itunpeko irakaskuntzako gatazkaren inguruan azalpenak emateko eta konponbideak exijitzeko. EAJ-k eta PSOE-ek konponbide bakarra ikusten dute: patronalak negoziatzera itzul daitezten eta administrazioa salbu usten duen epaia bete dezaten. PP-k aurrekontuen bitartez itunpeko irakaskuntza laguntzea eskatzen du, bestelako ñabardura barik. EH Bilduk arazoa sorrarazi duen murrizketa politika kritikatu zuen baina ez du ikusten arrazoizkoa itunpekoei dirua ematea irakaskuntza publikoan ezarritako murrizketak bertan behera geratzen ez diren bitartean. Talde guztien ekarpen interesgarriren bat ere izan zen: benetako zorraren inguruko zalantzak, finantziario marko berria negoziatzeko beharra,...

Ondorio gisa, esan genezake itunpeko ikastetxeetako langileak bien artean esku hutsik utzi nahi gaituztela. Batetik, patronalek, gure lanpostua galdu nahi ez badugu gure eskubideei uko egitea (Epaitegi Gorenak berretsi badizkigu ere) exijituz; bestetik, administrazioak, bere erantzukizuna saihestu nahian, patronalei bereak eta bi egiten usten diena. Antza denez, inork ez du bestelako aterabiderik aurkitzen eta *Kristau Eskolak* administrazioarekin daukan deman komunikabideen babesa jasotzen ari da ikastetxeetan sindikatuen proposamenak zikintzeko mehatxuak eta xantaiak jarraitzen duten bitartean.

Panorama honetan urriaren 22 eta 24 lanuzteak kokatu behar ditugu; Horiek bultzatuz, langileok adieraziko dugu ez gaituztela beldurtuko eta gure eskubideak berresten ez dituen konponbiderik ez dugula onartuko.

GURE LAN BALDINTZAK BORROKATU!!
MURRIZKETARIK EZ!!



ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org